

BERDIN SAREA

BERDINSAREAN SARTZEKO ESKAERA IZAPIDETZEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK UDAL-ELKARTEEN KASUAN

1. **Atxikipen-agiria.** Mankomunitate, Koadrilla edota Elkarte eskatzaileak (Presidente edo Alkateteek) bete eta sinatu behar duen dokumentuaren eredia eranstean da, osoko bilkurak onartua, pdf eta Word formatuetan, aldaketa garrantzitsuak sartu ahal izateko.
2. **Betekizunak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak:**
 - 2.1. **Berdintasun Plana Elkartuaren (Eskualde, Koadrilla edo Mankomunitatekoa)** justifikazioari dagokionez, osoko bilkuran horren onarpena bidaltzea. Planak indarrean egon behar du, edo osoko bilkurak eguneratu eta berretsi behar du luzapenean badago.
 - 2.2. **Teknikariei** buruzko justifikazioari dagokionez, ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, non esplizituki jasoko baita teknikariak esperientzia eta/edo prestakuntza baduela eta nor izango litzatekeen.

Hauek dira balorazio-irizpideak:

- A. Berdintasunaren arloko **prestakuntzaren** justifikazioa: unibertsitateek edo berdintasun-erakundeek eman behar dute prestakuntza, eta 180 ordu baino gehiago iraun behar du. Dagokion titulazioa erantsi behar da.
- B. Berdintasunaren arloko **lan-esperientziaren** justifikazioa: esperientziak barne hartu behar du berdintasunerako plan edo programa bat sustatzeko erantzukizuna, mainstreaminga eta ekintza espezifikokoak ezartzea errazten duten estrategiak kudeatzea. Esperientzia jasoz gero, ziurtagirian honako hau jasoko litzateke: "... teknikariak garatzen dituen funtzioen artean dago emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko programak bultzatzea eta diseinatzea eta aholkularitza teknikoak ematea, mainstreaminga eta ekintza espezifikokoak ezartzea errazten duten estrategiak kudeatuz".
- C. **Zerbitzu egonkorra** delako justifikazioa. Ziurtagiriak erakundearekin duen kontratu-harremana aipa dezake, lanpostua, lanaldia eta iraupena aipatuz. Mankomunitate, Koadrilla edo Udalen LPZ-an Berdintasun Teknikariaren lanpostua agertzen denaren ziurtagiria.

BERDIN SAREA

- D. **Dedikazioaren justifikazioa:** ziurtagiriak aipatu behar du teknikariek dedikazioa duela Erakunde elkartuaren berdintasun-plana eta -programa bultzatzeko..
- 2.3. **Aurrekontuari dagokionez,** aurtengo urtean berdintasun-programetara bideratutako zenbatekoa aipatu behar da **Udal-Elkartearen aurrekontuan eta udal bakoitzarenean eta** udaleko aurrekontuan suposatzen duen portzentaia edo ehunekoa.
- 2.4. **Parte hartzeko bideei dagokienez,** adierazi zeintzuk (organoak, egiturak), parte hartzen duten erakunde eta pertsona motak, eta horien izaera eta helburuak, bai organu bateratua (adb. *Eskualdeko Berdintasun kontseilua*) denean zein udalez udalekoa izanik
3. Berdintasunaren eremuan udal-elkarteak izandako ibilbidearen **memoria** labur bat, bertan elkateak eta udalek berdintasunaren arloan eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurka dituen baliabide eta zerbitzuen berri emanez.
4. Udal-Elkarteak (Mankomunitate, Koadrilla edo Elkartea) tokiko bizitzan emakumeen eta gizonen berdintasunerako estrategia garatzearen, emakumeen aurkako diskriminazio mota guztiei modu aktiboan aurre egitearen eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borroka antolatzearen aldeko apustu irmoa eta zalantzarik gabea egin duela egiaztatzen duen dokumentazio guztia ematea. (Protokoloak, Plan Sektorialak, Ordenantza, ...)